



Arartekoaren 3/2015 Gomendio orokorra, apirilaren 20koa.

Euskara ikasteko laguntza publikoak hedatzea, langabetuek ere laguntza horiek baldintza berdinetan jaso ahal izateko.

I. Aurrekariak

1.1. Ebazpen hau premia bikoitzetik sortzen da:

- Alde batetik, aukera-berdintasunaren printzipioa betetze aldera, euskara sustatzeko politika publikoen alderdi berezi bati (hain zuzen, euskara ikasteko laguntzei) aplikatzen zaizkion irizpideak bateratzeko premia dago.
- Bestalde, politika horiek sustatzeko beharra, haien eragina hizkuntz normalizaziotik harago doan arlo batean; izan ere, euskara ikasteak egungo egoeran garrantzi handiko faktore bat bete-betean ukitzen du: gero eta selektiboagoa den lan-merkatuan aukera bila dabiltzan langabetuen enplegarritasuna.

1.2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegurako gaitasuna lortzeko programen barruan beste hizkuntza batzuen ikastaroak ematen dira, baina ez euskararenak, xede horretarako diru-laguntza publikoak udalek kudeatzen baitira.

Hala ere, erakunde honek egiaztatu duenaren arabera, badaude udalak, euskara ikasteko programarik ez dutenak; gainera, herritarren eskura dauden programen artean ere ez dago homogeneotasunik. Adibidez, Pasaia, Donostia edo Erreterria bezalako udalerrietan, udalek matrikula osoa ordaintzen diete bertan erroldatuta dauden langabetuei, euskara ikas dezaten; beste udalerrri batzuetan, berriz, hala nola, Barakaldon, langabetuei ematen zaie lehentasuna euskara ikasteko diru-laguntzak esleitzeko orduan. "Bidasoa Bizirik" agentzia publikoa, berriz, Lanbiderekin lankidetzan, hainbat ekimen garatzen ari da langabetuei doako euskara-ikastaroak eskaintze aldera.

Beste udalerrri batzuetan, ez da euskara ikasteko diru-laguntzarik ematen, eta horien artean, Bilbo da kasurik aipagarriena, biztanle-kopurua dela eta. Izan ere, Bilboko emakume baten kexa bat bihurtu zen Arartekoak esku hartzeko arrazoi, bertan erroldatuta dauden langabetuentzat euskara ikasteko diru-laguntza publikorik ez egotea dela era.

Hala ere, laguntza horiek sistema oso eta koherente baten bidez kudeatu behar dira. Hori dela eta, ikuspegi estrategiko batetik bideratu dugu arazoa, konponbideak bilatzeaz gain, hartutako neurriek, edozein kasutan, Euskal Autonomia Erkidego osoko herritarren aukera-berdintasun printzipioa bete dezaten.

Hortaz, Arartekoak bidezkotzat jo du ildo horretan gomendio orokor bat egitea, honako gogoeta hauek oinarri hartuta:

II. Gogoetak

//.1. Euskarak gure gizartean duen komunikazio-, kultura- eta nortasun-balioetik harago, eta horren ondorioa den hizkuntza hori ikasteko garrantzia gorabehera, gaia berebiziko garrantzia hartzen ari da lan arloan. Izan ere, Euskadin, arlo pribatuan eta batez ere publikoan, gero eta lanpostu gutxiagotan euskara jakitea ez da jotzen prestakuntza-faktore gehigarritzat. Edonola ere, joera horren izaera progresiboa hizkuntz normalizazioan gertatzen ari den garapenaren seinale da. Zoriontzekoa da, beraz.

Ondorioz, langabetuek Lanbidera prestakuntza bila jotzen dutenean, eskaintzan gure hizkuntza ofizial horren ikastaroak aurkituko dituztela uste izatea logikoa ere dirudi. Beraz, ez da batere harritzekoa pozik ez egotea, Lanbiden doako euskara-ikastarorik ez dagoela ikusita, udalak langabetuentzat den euskara ikasteko diru-laguntzarik ez duela konturatzen direnean.

//.2. Bestalde, botere publikoek, berdintasun irizpideei jarraikiz, indartu beharko lukete herritar langabetuen enplegarritasuna, bizi diren udalerrian bizi direla; udal guztiek xede berdinetako programak ez izateak, ostera, konparaziozko bidegabekeria sortzen du praktikan, eta bereziki sektore horri eragiten dio.

//.3. Kasu bakoitzean dagokion administraziora jo izan arren, gai honi heltzeko, udalerrietako mugak gainditu beharra dagoela ulertu dugu. Gaiaren inguruan erantzun integrala eta homogenea emateko, beharrezkoa iruditu zaigu horren berri ematea Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, baita Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari ere.

Hemen azaltzen den moduan, gure kezka organo horietan planteatu dugu, haien iritziak jakiteko. Laguntzak emateko balizko programei buruzko informazioa ere eskatu diegu. Gainera, galdetu diegu asmorik ote duten beste administrazio batzuekin batera arlo horretan elkarlanean jarduteko.

//.4. Arartekoak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren erantzuna jaso du. Horren bidez, lehendabizi, Sailak helduak euskalduntzeko eskaintzen dituen zenbait laguntza publikoren berri eman digu. Hain zuzen, HABE erakundearekiko eta hainbat udalekiko lankidetzan ematen dira laguntza horiek. Zehazki, udalerrri batzuetan badaude hainbat laguntza –bereziki langabetuentzat– baina askotan ez dira nahikoak izaten, ez baita posible kolektibo guztien ikastaroen kostu osoa ordaintzea.

Bestalde, jakinarazi digute erakunde honek helarazitako gaiaz arduratuko direla, eta horri dagokionez, legegintzaldi honetan hainbat ekimen burutu dituztela jada eta oraindik burutzeko asmoa dutela. Ildo horretan, Eusko Legebiltzarrak 2013an onartutako Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Legearekin lotutako ekimenak aipatu dituzte eta esan dute ekimen horiek garatzeko neurriek euskara ikasteko laguntzen eskaintzan aurrerapausoa egitea izango dutela helburu, unibertsaltasun-irizpideekin bat.

Era berean, beste ekimen batzuk aipatu dituzte, 2014an Eusko Jaurlaritzak onartutako Euskararen Agenda Estrategikoan jasotakoak, eta horien artean honako hau: *"HABE, LANBIDE, udal, udal euskaltegi, euskaltegi pribatu homologatu, Hizkuntza Eskoa Ofizial, IRALE, IVAP eta esparruko gainerako agente publiko eta pribatuen arteko osagarritasuna aztertu eta sendotzea"*. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila prest agertu da arlo honetan 2015 eta 2016an lan egiten jarraitzeko eta bat etorri da erakunde honekin Lanbiderekin batera eta lankidetzan jardun behar duela. Aipatu digutenez, dagoeneko hitz egin da langabetuen kasu espezifikoa buruz.

Ildatzia bukatzeko, Sailak adierazi du azaldutako gaiari dagokionez oraingoz konponbide osorik eskaini ezin izan arren, oso kontuan izango duela Arartekoak helarazitako kezka. Gainera, etorkizun hurbilean oso gogoan izaten jarraituko dutela esan digute eta arlo honetan egingo diren urratsen berri erakunde honi emateko konpromisoa hartu dute.

II.5. Bilboko Udalarari dagokionez, gure lankidetzaren eskaerari erantzun gisa, txosten bat jaso dugu Euskara, Gazteria eta Kirol Sailaren zinegotzi ordezkariarengandik. Txostenak bere helduen euskalduntzea kudeatzeari buruzko iritzia jaso du, izan ere, bere ustez, onena izango litzateke HABE erakundearen bidez egitea. Erakunde hori Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari atxikita dago, 1983ko azaroaren 25eko 29/1983 Legearen arabera.

Horrela bermatuta egongo litzateke, zinegotziaren iritziz, euskara ikasteko diru-laguntza publikoak euskal herritar guztien artean berdintasun irizpideei jarraituz banatzea. Ildo horretan esan du euskara sustatzeko botere publikoek duten eginkizuna betetzea, euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko Legeak jasotzen duenaren arabera, ahalik eta orokorren antolatu behar dela; udalen bidezko sistema batek, berriz, herritarren artean desberdintasun-egoerak sortuko ditu, berdintasuna sustatu beharrean.

Helduen euskalduntzeari aurre egiteko udalak duen aurrekontua nola banatzen den azaldu digu: alde batetik, ingurune akademikotik kanpoko erabilerarekin lotutako neurriak aipatu ditu, hots, euskara kalean erabiltzea sustatzen duten programak eta ekitaldiak; bestalde, adibidez, merkatariei eta beste gizarte talde estrategikoei zuzendutako baliabideak, hau da, lanbide-jarduerari lotutako moduluen bidezko ikasketa; eta azkenik, haur txikien gurasoentzako neurriak, familia-ingurunean euskara transmititzeko eta horren erabilera bultzatzeko.

Bukatzeko, Bilboko zinegotziak, dagokion sailaren ordezkariak, eskerrak eman dizkio Arartekoari gai horretaz arduratzeagatik, Bilboko Udalean hausnarketa egiteko arrazoia egoten baita askotan. Ildo horretan, hots, euskara ikasten duten helduak desberdin ez tratatzeko, Arartekoak, bitarteko izateko gaitasuna erabiliz, hiru Lurralde Historikoen arteko lan-mahaia osatzea bidera dezala proposatu du; bertan, gai horren inguruan hitz egiteko aukera izango lukete, hori guztia Eusko Jaurlaritzari jakinaraziz.

II.6. Azaldu ditugun euskara sustatzeko neurriak ontzat jo behar ditugu. Hala ere, gure politiketan gauza bi falta direla aitortu behar da:

- Herritar langabetuen kasuan, hizkuntza ofizial biak ezagututa lan-merkatuan sartzeko aukerak areagotzeko estrategia integralik eza.
- Irizpideen sakabanatzeak praktikan konparaziozko bidegabekeria-egoerak sortzen ditu herritarren artean, bizi diren udalerriaren arabera.

Ikusi dugunez, administrazioak ohartzen dira errealitate horretaz eta bat datoz konponbidea aurkitu behar delako iritziarekin.

Hori dela eta, eta aurretik azaldu den bezala, egoera zuzentzeko gogoia jasota, berriz ere esan nahi genuke bidezkoa izango litzatekeela erakundeen arteko lankidetzeta, elkarren arteko hausnarketa egiteko. Horrek azaldutako premiari aurre egiteko neurriak ekarriko lituzke, baita, arlo horri dagokionean, herritar guztien trataera berdina bermatzeko antolaketa-irizpideak ere.

Neurri edo irizpideon izaeraren inguruko elkarlanaren ezaugarriak xedatzea eta zehaztea ez dagokio erakunde honi, botere publikoek dituzten haien politikak diseinatzeko ahalmenetako bat baita. Legearekin bat, euskal administrazioek dute haien baliabideak –definizioz, urriak– egokitzeko eskumena, bai hizkuntza-politikaren, baita enplegurako prestakuntzaren arloan.

Horien artean, batez ere, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailera jo beharko genuke, baita Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailera ere, Lanbide horren menpean baitago. Izan ere, araudiaren arabera, erakunde horiek dute berariazko eginkizuna interesatzen zaizkigun bi arloetan: alde batetik, euskara sustatzea eta helduei irakastea; eta bestalde, enplegurako prestakuntza eta trebakuntza ematea. Hori guztia, udal administrazioaren zereginak ahaztu gabe.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, hurrengo gomendio hau aurkeztea jo dugu bidezkotzat:

GOMENDIO OROKORRA:

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari, tokiko administrazioarekin eta Lanbiderekin batera lan egin dezan, euskara ikasteko laguntza publikoak susta daitezzen eta langabeei ere eman diezazkieten, laguntza horiek berdintasun egoeran jasoko direla bermatuz.